

IDOIA EHZMENDI

BILBAO

Begoña Bilbao EHUko Bilboko Magisteritza Eskolako irakasleak emakumeak nahi zituen bere epaimahaian. Ez zekien lor zitekeen ala ez, baina ahaleginak egitea erabaki zuen. Azkenean, bete beharreko eskaera legal guztiak bete ondoren, bere nahia lortu zuen: bere tesia Euskal Herri osoko andraz osatutako epaimahaia baten aurrean defendatzea. Orduan ez bazekien ere, badirudi osaketa hori duen lehenengo epaimahaia dela. Leioako Unibertsitateko Idazkaritzan horrela den ala ez ziurtatzeko frogaren bila dabilta.

'Kultura Erreferenteak Oinarriko Hezkuntza Curriculumean' izeneko tesia joan den maiatzean aurkeztu zuen bere egileak.

Duela hamar bat urte lagun batzuen artean elkartu ziren tesia zela eta. Argi zuten gustoko gaia izan behar zuela, baina horrez gain, baliogarria izatea nahi zuten baita ere. "Unibertsitatean lehenengo kurtsoko ikasleekin aritzen gara, eta ikasleek Euskal Herriari buruz zekizkiten edukinak oso sinpleak zirela ikusten genuen, oso azalekoak; ikasleek ez dituzte ez Euskal Herriko pertsonaiak, ez datu historikoak, ezta lekuak ere ezagutzen. Gure buruari zer demontre ikasten zuten galdetuz, eduki horien azterketari buruzko tesia egitea pentsatu genuen", gogoratzen du Begoña Bilbao.

Nazioarte mailan Edukiaren Azterketa arloak gero eta garrantzi handiagoa daukala ikusita, zentzuzkoa iruditu zitzairen arlo horri heltzea.

LAN TALDEA

Pertsona batentzako lan gehiegi zela ikusita elkartzen ziren tartetan, kafearen aurrean, ideari bueltak emanez, lan taldean egitea erabaki zuten. "Gure herrian lan taldeak garrantzi handia du, horregatik aparteko interesa zuen guretzat, oso abertzarria izan zitekeela ikusi genuen. Pausu bakoitzeko eztabaida asko sortu ditugu", azaltzen digu Begoña Bilbao.

Gaia hiru ataletan banatu zuten: lurraldetasuna eta historia; arlo zientifikoa; eta euskara eta euskal kultura. Azken hau da Begoña Bilbao ikertu duen gaia, "zer esaten da euskarari buruz eta zer irakasten da euskal kulturatzat testu liburuetan".

Orain arte, berea da talde horretatik aurkeztu den tesi bakarra, beste biak, hain zuzen ere Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urrazarena, amaitzeaz daude. 1995ean tesiaren aurreproiektua onartu zieten eta hortik aurrera ikerketaren mugak zehazten hasi ziren.

Mugak finkatu ahal izateko aurreanalisisa egiteari ekin zioten lehenengoz, horren ondorioz, bostgarren mailako Inguaruaren Ezagueraren testu liburuak aztertzeraz mugatzea erabaki zuten. "Hamaika urtekin hasten dira edukinak ezagutzen, eta horregatik, hori zela aukera egokiena ikusi genuen. Psikologiaren arabera ere, adin horretan aldaketak ematen omen dira, pentsamendu abstrakto hasten da, beste modu bateko ezagutzak ulertzen has-

Mende osoko euskal liburu testuak aztergai

Emakumez osatutako azterketa-epaimahaia batek entzun zuen euskara eta euskal kultura liburu testuetan aztertzen duen tesia



Epaimahaiko kideak eta Begoña Bilbao bizkarra ematen.

ANDRA

"Emakumeak bakarrik oso gutxitan agertzen dira testuliburuuetan"

I. A.

Euskal kulturarekin lotuta pertsonaia aldagaia aztertu du Begoña Bilbao, horren barruan generoari buruzko datu asko jaso ditu, "baina oraindik azterketa gehiena egiteko dago, gai horri jarraipena eman nahi diot", diosku Bilbao. Hala ere, emakumezkoen presentzia erakusten duten datu interesgarriak ikus daitezke.

Azken hamarkadako testu liburuetan gizonetakoak lan tekniko eta gertaera historikoetan agertzen dira, emakumezkoak, berriz, familian, erizain eta maistra lanbideetan eta kirola egiten irudikatzen dira, gehienbat.

Bestaldetik, hizkuntzari buruzko irudiak agertzen diren emakume eta gizonak



Begoña Bilbao

zenbatu ditu, lehen mendean %68 gizonen portzentaiaren aldean, emakumezkoena oso

baxua zen, hain zuzen ere, %8a, talde mistoak berriz, ez ziren agertzen, "liburuak mutilentzat egindakoak ziren, neskak jostura eta horrelakoak ikasten zituzten eta". Bigarren epean emakumezkoen presentzia igotzen da, hiru gizonetik andra bat agertzen baita. "Harrigarriena azken hamarkadako datuak ikustea da, talde mistoen agerpena igo da, hau da emakumeak eta gizonak batera, baina emakumeak bakarrik oso gutxitan agertzen dira, gizonak bakarrik, berriz, inoiz baino gehiagotan, bost gizonetik andra bakar bat agertzen da. Azken urteotan curriculum ofizialean, inoiz egin ez den moduan, sexuen arteko berdintasuna landu behar dela bereziki aldarrikatzen da, eta hau da ematen duten irudia".

azpimarratzen du, "Iparralde, Euskal Autonomi Erkidego eta Nafarroako euskal liburu guztiak aztertu ditugu. Zenbait kasutan, egoerak aginduta, erdal liburuak hartu ditugu kontuan baita ere, frantseseraz eta gaztelaraz. Iparraldean adibi-

dez, ez zegoen ia ezer euskaraz, eta guk jakin nahi genuen zer irakasten zen euskal kulturari buruz, horretarako frantses liburu batzuk aztertu behar izan ditugu".

Azterketarako hiru epe ezarri zituzten lurraldeko hiru

errealitate administratibo ezberdinei ondo moldatzen zirela ikusirik: 1876tik 1974ra, 1974tik 1992ra eta azken hamarkada.

TESTU LIBURUEN ERAGINA

Testu liburuari garrantzi handia ematen zaie nazioarte mailan. "Europako herrialde askotan, Frantziar adibidez testu liburuen ikerketarako institutuak daude, guztietan, Historia da gehien aztertzen den arloa. Liburuak pisu handia dute. Hemen, berriz, ez dago ezer. Liburuak ez dira baloratzen, erabili eta gero bota egiten dira", azaltzen du Begoña Bilbao. Liburuak aurkitzea lan izugarria izan da, zenbait liburuak ale bakar bat ere ez dute aurkitu, "unibertsitateko liburu-tegiak berak bota egin ditu liburu asko, argitaletxeetan ere ez dira gordetzen beraien ibilbidean erabilitako testu liburuak", gaineratzen du.

Euskal kultura adierazteko erabiltzen diren aldagaien artean paisaiak garrantzi handia du, hain zuzen ere, horixe da azken hamarkadako liburuetan gehien agertzen den aldagaia. "Azken hamarkadan Euskal Herriko kulturari buruzko edukiak oso azalekoak direla ikusi dut, aldagai ohikoenak paisaia, jaiak, kirola eta gastronomia dira, hau da, alde turistikoa eta folklorikoenak. Ekonomia adibidez, ez da inondik agertzen, pertsonaiak ere gero eta gutxiago agertzen dira. Euskal nortasunari buruzko beste ezaugarriak edo ez dira agertzen edo oso gutxi".

Bestalde, euskal kultura aparteko atala bezala agertzen da oraingo liburuetan, eduki ezberdinak lantzen dira eta beste hainbat gairen artean sartzen dute.

Lurraldea eta nomenklaturari dagokionez, frantses liburuetan Euskal Herria ez da existitzen, hemen bertan argitaratzen direnak alde horri begiratuta egokienak direla uste du Bilbao. Gaztelararen itzulpena diren artean ikerlari hauek "erreferente nahasia" izendatu dutena nagusitzen da. "Erreferenteak erabat nahasten dira, horregatik eman diogu izen hori. Adibidez, 'Euskal Herriko Klima' izenburua agertzen da eta irudian Komunitate Autonomoko mapa agertzen da, edo alderantziz". 1989an erabili zuen Santillana argitaletxeak, lehenengoz, geroztik nahiko arrunta bihurtu den erreferente nahasia. Ikuspegi juridikoak ere zerikusi handia du erabiltzen den nomenklaturarekin, Euskal Autonomi Erkidegoaz mintzatzen da azken bi urtetan, Euskal Herria hitzen kaltetan.

Hizkuntza dela eta, mende hasierako euskal liburuetan ez zen euskerari buruzko azalpenik ematen, ez zen beharrezkoa, Bilbaoren ustez "euskeraz idazten zuten eta kitto", Franco hil eta gero, berriz, euskerari buruzko azalpenak hasi ziren, baina sakondu gabe. Gaur egun, Euskal Herriko hizkuntza bezala agertzen da, baina azalpen gutxi ematen dira baita ere. Bilbaoren ustez, "Kultura eta hizkuntza, biak dira diglosikoak liburu testuetan, euskal kulturari ez zaio dagokion entitate ematen. Guzti honek oso eragin handia du, euskaldun sentitzeko oinarri gutxi ematen zaie ikasleei, euskal kultura ez da modu adierazgarrian ematen".